

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hasteko, behar dugun bazkide sarea irakaskuntzan aritzen diren ikastetxe publikoak izango dira, irakaskuntza hobetzea edo proiektu berriak aurrera eramatea helburutzat dutenak. Beraz, aipatutako enpresak, gure bazkideak izan daitezke eta gure zerbitzua aurrera eramateko behar dugun baliabideak edota aholkularitza eskaini gaitzakete.

Alde batetik, interneteko konexioa erraztuko digun enpresa dugu, routerrak emango dizkiguna; gure ordenagailuak eta hardwareak erabiliko ditugu hasiera batean gure enpresa aurrera eramateko, eta gure proiektuak indarra hartzen duen heinean informatikan eta teknologian aritzen diren enpresekin harremanak izango ditugu.

Bestetik, udaletxeak ere lagun gaitzake gizarte laguntzaile eta hezitzaileen zerbitzuak ematen, gure lanetan laguntzeko eta haiengandik aholkularitza izateko. Haien bidez arlo horretan profesionaltasun handiagoa lor dezakegu eta horrek enpresa eramateko trebetasun handiagoa emango digu; beraz, oso garrantzitsua da gizarte langile hauen lana gure enpresaren xede orokorra aurrera eraman ahal izateko.

Beraz, gure hornitzaileak nahitaezko elementuak dira gure enpresarentzat, hauen bidez, gure bezeroek espero duten emaitza lortzeko ezinbesteko laguntza ematen digutelako. Ondorioz, hornitzaile egoki bat edukiz gero, kudeaketa itzela lortuko dugu.